# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 1172

*230/2021 EBAZPENA, otsailaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Jesús María Larrañaga Garitano jauna Arabako Erakunde Sanitario Integratuaren Zuzendari gerente lanpostutik kentzen den, berak hala eskatuta.*

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 23 460/2015 Ebazpenaren bidez (EHAA 41. zenbakian argitaratutakoa, 2015eko martxoaren 2an), Jesús María Larrañaga Garitano jauna Arabako Erakunde Sanitario Integratuaren zuzendari gerente izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Jesús María Larrañaga Garitano jauna Arabako Erakunde Sanitario Integratuaren Zuzendari gerente lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta, 2021eko otsailaren 16ko lanaldia bukatzen denetik, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.